IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

4633

IRAGARKIA, 2026ko urriaren 21ekoa, Arabako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko lurralde-ordezkariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baitira aurretiazko administrazio-baimenaren, eraikitze-baimenaren eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren eskaerak, «Lovaina Solar» eta «Zaramaga FV» eguzki-instalazio fotovoltaikoetarako eta haiei lotutako azpiegituretarako, Vitoria-Gasteizko udal-mugartean.

Kontuan izanik zer xedatzen duten Energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak arautzen dituen martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuak 10. artikuluan eta Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeak 53.1 artikuluan, eta bat etorriz Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin, jendaurrean jartzen dira «Lovaina Solar» eta «Zaramaga FV» instalazio fotovoltaikoen eta haiei lotutako azpiegituren proiektuak eta ingurumen-inpaktuaren azterketa bateratua.

• Helburua: energia elektrikoa sortzea.

• Eskaeraren xedea: aurretiazko administrazio-baimena, eraikitzeko administrazio-baimena eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena.

• Eragindako udal-mugartea: Vitoria-Gasteiz.

• Ebakuazio-puntua: sortutako energia ebakuatzeko puntua Gamarra-Olarizu I linean dago (30 kV).

Espedientea: 01-GE-Y-2025-00026.

• Eskatzailea: Jambo Renovables, S.L.U.

• Proiektua: «Lovaina Solar». Honetan datza:

«Lovaina Solar» eguzki-instalazio fotovoltaikoa. Eguzki-instalazioa 745 Wp-ko 8.876 moduluz eta 300 kW-eko 16 inbertsore fotovoltaikoz osatua dago. 4,8 MWn-ko potentzia du, guztira.

Bi transformazio-zentro, 3.000 kVA-ko transformadorearekin.

CS Lovaina Solar eta CS Particular sekzionamendu-zentroak.

Goi-tentsioko lurpeko ebakuazio-linea transformazio-zentroetatik CS Compañía-raino, CS Lovaina Solar, CS Zaramaga FV eta CS Particular-etik igarota. 5.408 m-ko luzerakoa, gutxi gorabehera.

«Lovaina Solar» eta «Zaramaga FV» instalazioek goi-tentsioko lurpeko ebakuazio-lineari dagokion ebakuazio-azpiegitura partekatzen dute, CS Zaramaga-tik CS Compañía-raino.

• Eguzki-instalazioak eragindako azalera: 7,3 ha.

• Aurrekontua, BEZik gabe: Instalazioa: 2.820.974,12 euro; Linea: 444.387,95 euro.

Espedientea: 01-GE-Y-2025-00027.

• Eskatzailea: Torimbia Green Energy, S.L.U.

• Proiektua: «Zaramaga FV». Deskripzioa:

«Zaramaga FV» eguzki-instalazio fotovoltaikoa. Eguzki-instalazioa 745 Wp-ko 8.064 moduluz eta 300 kW-eko 16 inbertsore fotovoltaikoz osatua dago. 4,8 MWn-ko potentzia du, guztira.

Bi transformazio-zentro, 3.000 kVA-ko transformadorearekin.

CS Zaramaga FV sekzionamendu-zentroak.

Lurpeko ebakuazio-linea, transformazio-zentroetatik CS Zaramaga FV-raino. 510 m-ko luzerakoa, gutxi gorabehera.

• Eguzki-instalazioak eragindako azalera: 8,64 ha.

• Aurrekontua, BEZik gabe: Instalazioa: 2.646.733 euro.

Proiektu honen aurretiazko administrazio-baimena eta hura eraikitzekoa ematea Arabako Industria Administrazioko Lurralde Ordezkaritzaren eskumena da, eta informazio publikoaren izapideari lotua. Hain zuzen ere, bi proiektuen ingurumen-inpaktuaren azterketekin batera egingo da izapide hori, bat etorriz Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikuluarekin.

Bi proiektuen dokumentazioa jendaurrean jartzen da, interesdunek eta, oro har, herritarrek hori aztertzeko aukera izan dezaten Industria Administrazioko Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 2, Vitoria-Gasteiz) eta Interneteko www.euskadi.eus web-orrialdean (Energia eta Meategiak/Energia ataleko Proiektuei buruzko Informazio Publikoa azpiatalean: https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/energia-meategiak/hasiera/), eta egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten. 30 eguneko epea egongo da horretarako, iragarki hau argitaratzen den egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urriaren 21a.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkaria,
JAVIER AIZPURU OCHOA DE ERIBE.